



'TXARIBARI' ANTZEZLANA GAUR GUREAN

Villabonan Panta Rhei antzerki taldeak kulturanzitasunari buruzko emanaldia egingo du, 17:00etatik aurrera » 6

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-12-20

VIURTEA 1.589.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Laskorain, Hirukide eta Inmakuladako zuzendariak, herenegun, ziurtagiriak jaso ondoren. HITZA

World Kafea «antzerkitzat» jo du Zahartzaro Duina plataformak

TOLOSA «Gerontologikoaren gaia ez zuten aipatu ere egin» salatu dute, besteak beste 2



R. CALVO

JOSE MARI MUJIKA
LAB SINDIKATUKO IDAZKARIA

«Euren krisia euren kontura; hau da gure kontsigna»

TOLOSALDEA Eskualdean krisiak izango dituen ondorioak aztertu ditu 7

KALITATEZKO HEZKUNTZA

TOLOSA Laskorain ikastolak Kalitatearen urrezko Qa eta Hirukide eta Inmakulada ikastetxeek zilarrezko Qa jaso zuten herenegun Barakaldoko BECen izandako ekitaldian 3

Ordutegirik gabe eta mundu guztiari

90x1 tarifa berria. Ordaindu minutu bat, eta hitz egin 90 minutuz!

Edozein ordutan eta edozein operadoreekin

Konfiantza orain, eta eskuratu mugikor hauetako bati



NOKIA 5610
Mugikor erabilgarria, MP3, 30.000.000 irudiak
"Jari zure banda berriz!"

59€



NOKIA 5610
MP3, 30.000.000 irudiak
"Diseno erakargarria eta kolore berria"

15€



San Francisco 19, Tolosa
943 698 126

Bereziki Ofiziala



«Antzerkitzat» jo du Zahartzaro Duina plataformak World Kafea

Gizartea » Gerontologikoa hizketagaien artean aipatu ere ez zela egin salatu dute, beste hainbat gai garrantzitsuren artean.

ERREDAKZIOA

Zahartzaro Duinaren Aldeko plataformak, azaroaren 28an egin zen World Kafearen inguruan, antolatzaileek plazaratutako ondorioak ikusita, ekimenaren beste irakurketa bat egin nahi izan dute. Lehenik eta behin, argi utzi zuten egindako agerraldian, plataformako kideentzat, «oso gogorra» izan zela egun horretan, Zerkausian, han bildurik zeudenen aurrean pankarta batekin egotea. Baina aldi berean, «ezinbestekotzat» jo zuten «herritarren parte-hartzearen izenean Udalak antolatutako antzerki hurra salatzeko».

Zahartzaro Duinakoe behin baino gehiagotan salatu dute, Udalak parte-hartzea ukatu diela, eta oraingoan ere gauza bera adierazi



Zahartzaro Duinaren Aldeko plataformako kideek agerraldia egin zuten herenegun, World Kafeaz hitz egiteko. E. EZEIZA

dute, «ez baitigute ekitaldian parte hartzeko aukerarik eman».

Hirugarren adinekoekin lotutako gaiak dagokionez gerontologiko berriari buruz «ez zen hitz egin», plataformakoek hitzetan; «ondorioetan behintzat ez zen agertzen», gaineratu zuten. Ezta lurre-amendi egoitzan gertatu diren arazoak, edota jangela sozialean eman diren murrizketak, nahiz eta

Jose Agustin Arrieta, Gizarte Ongizateko Komisioko lehendakaria tartean egin.

Bestalde, plataformakoek iritziak, Udalak eta Bakitekek agertutako datuak nahiko esanguratsuak dira, «sasi parte-hartze honen baliogabetasunaren adibide dira, hau da, antzerkiaren parte». Izan ere, mugikortasun eta garraioaren atalean, eskualdetik, eta zuzenean, hi-

ritik igaroko den Abiadura Handiko Trenaren inguruan «ez zen aipamenik egin», eta hau datu esanguratsutzat jotzen dute. Bestalde, bidegorrien sorrera baikorki baloratu zuten.

Azkenik, Baketiken jarrera «mingarria» izan dela deritzote, eta desengainu handia izan dutela honekin adierazi, «antzerkiaren zati izan baitira beraiek ere».

Futbolariaren agiriarekin bat egin dute

Kirolak » Eskualdeko hainbat kirolariek Euskal Herria-Iran partida jokatzeko eskatu dute, futbolariak agiria babestuz.

ERREDAKZIOA

Azaroaren 13an Euskal Herriko futbolari izenean, 165 futbolari eta futbolari ohiek prentsara bidalitako agiriarekin bat egin dute modalitate ezberdinetan parte hartzen duten eskualdeko hainbat kirolariek. Beraiek ere agiria babesten dutela eta futbolariaren arrazoi eta erabakiarekin bat egiten dutela adierazi dute.

Herenegun egindako agerraldian, Euskadiko Futbol Federazioari Euskal Herriko selekzioak na-



Eskualdeko hainbat kirolari elkartu ziren herenegun, babesa eskaintzeko. E. E

zioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzeko bidean atzerapausorik ez emateko eskatu zioten. Gaineratuz eta berretsiz, aurreko urteetan futbolariaren elkarlanean hasitako bideari jarraituz, aben-

duaren 23an, Euskal Herria-Iran partida antola dezatela.

Txapelketa ofizialetan Euskal Herria, «gure herria», ordezkatzeko aukera izan nahi dutela diote eskualdeko hainbat kirolariek. Horre-

tarako, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoako kirolari guztiak bilduko dituen federazioaren beharra azpimarratuz. Garbi utzi nahi izan zuten ere, ez doazela inoren aurka, ez eta, inori ezer kentzera ere, dagokionea aldarrikatu eta diren izan nahi dutela.

Kirolariaren esanetan, «gure kirol ibilbidean jarraitu ahal izateko, aurrera egiteko, eta mundu mailan izen handiena duten txapelketetan parte hartu nahi badugu, Frantzia edo Espainiako ikur eta koloreak defendatzera behartuta gaudu. Gaur egun, ez dugu beste aukerarik, baina zirriritu txikiena irekitzen den egunean, Euskal Herriko kirolariak zirriritua bide zabala bihurtzeko gure konpromisoa agertzen dugu».

Iragarki laburrak

LANA

■ **Etoko lanak.** Emakume euskalduna behar da etxerako, astelehenean larunbatera. 09:00etatik 15:00etara. Deitu 650 80 19 17ra.

SALGAI

■ **Etxe.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 00 11era edo 634 91 94 82.

ALOKAIRUA

■ **Etxe.** Jakan, hiru logelako etxebizitza alokatzen dute. Asteka edo hilabeteka. Deitu 635 75 02 93ra.
■ **Etxe.** Etxe bat alokatzen da Tolosako erdialdean. Bi gela dauzka, erdi amueblatuak. Berrituta dago, igogailuarekin. Leku eguzkitxuan. 650 euro hilean. Interesatuak deitu 656 73 60 56 telefono zenbakira.

Laburrak

Zikloturisten material berriaren aurkezpena

IBARRA » Ibarra zikloturistek arropa berria atera dute, diseinua aldatuz. Hori dela eta, produktu berriak aurkezteko asmoz, bilera egingo dute etzi, 19:30ean, Ibarra Kultur Etxean. Materiala erosteko edo ikusteko interesa duen oro ager daiteke batzarrera.

'Tolosa bihotz begietan' erakusketa, gaurtik ikusgai

TOLOSA » Lizardi Elkarteak Tolosa bihotz begietan izeneko margo erakusketa prestatu du. Hala, gaur bere atea zabalduko dute, bertan Juan Jose Agirre Aizpurua margolari tolosarraren lanak erakutsiko direlarik. Inaugurazio ekitaldia 12:30ean hasiko da, eta Aranburu Jauregian izango da.

Udal Musika Eskolako ikasleen kontzertua, gaur

TOLOSA » Gaur, 19:00etan, ohiturari jarraituz, Eduardo Mocoora Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute musika eskolako areto nagusian. Bertan instrumentu ezberdinekin, Eguberrietako kantua interpretatuko dituzte.

Trafiko aldaketak egongo dira bihar, Larramendin

TOLOSA » Larramendi kalean, Fundiciones Tolosa enpresaren garai bateko pabilioia bota egin behar dute. Hori dela eta, segurtasun arrazoia tarteko, neurri hauek hartu dituzte bihar, ibilgailuen trafikoari begira. 08:00etatik 09:00etara, kalea itxita egongo gasolindegiairean parean. Baita, biatletik eta Arrameleko zubitik Dornostia aldera joateko ere.

Kiroldegi publikoetako langileen elkarretaraztea

TOLOSA » ELA, LAB, CCOO, eta UGT sindikatuek elkarretaraztea deitu dute etzarako. Honekin, Gipuzkoako kiroldegi publikoetako langileen hitzarmen kolektiboa eskatu nahi dute. Protesta 10:30ean egingo dute kiroldegiaren aurrean eta Tolosako udaletxe aurrean 12:00etatik aurrera.

@ Eztabaida. Hitzako webgunean zeuen iritziak jaso nahi ditugu ta horretarako gure inkesta, eztabaida eta bestelako guneetan hartu dezakezue parte. Aste honetako eztabaida nagusia honakoa da: Zer iruditzen zaizu Tolosako Udalak trafikoan eta aparkatzekoan hartu dituen neurri berriak? Biala bi noranzkotan jartzea, Rondilla kalean aparkaleku gehigo, Lapurdiko parkingean gauko euro bateko kostua... Dena den, gainontzeko galderei ere erantzun diezaikezue.

www.tolosaldekohitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Kalitatezko hezkuntzaren eredu

Hezkuntza » Laskorain ikastolak kalitatearen urrezko Qa eta Hirukidek eta Inmakuladak zilarrezkoa jaso dituzte.

INIGO TERRADILLOS

Eusko Jaurlaritzaren zilarrezko eta urrezko Q sariak banatu zituzten herenegun Barakaldoko

BECen. Guztira, 35 erakundek jaso zuten, «euren kudeaketaren bikaintasunean lorturiko mailaren aintzatespen gisa», eta artean, Tolosako hiru ikastetxeek: Laskorain ikastolak urrezko Qa eta Hirukidek eta Inmakuladak zilarrezkoa.

Ekitaldi honen hamargarren edizioa izan zen herenegungoa, eta eskualdeko parte-hartze handia izan zuen, izan ere, asko eta asko izan ziren hiru ikastetxeen ordezkari bezala joan zirenak.

Egindako lan handiaren ondorioz jasotako saria zen, beraz, pozik joan ziren lorpena ospatzera.

Atzokoekin, Tolosari dagokionez, lau ikastetxeek dute, hau da, atzo saria jaso zutenek eta Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak, zilarrezko Qa baitu. Eskualdean, berriz, beste bi ikastetxeek dute zilarrezkoa, Ibarraoak eta Anoeta-Irurakoak, alegia. EAE mailan, 207 erakundek dute zilarrezko Qa eta 48k urrezkoa.



Laskoraino, Hirukideko eta Inmakuladako zuzendariak, herenegun. HITZA

«Ondo egin eta bukatutako lana izan da»

JONE URTEAGA » Laskorain ikastolaren zuzendaria

Zilarrezko Qa lortu zuen Laskorain ikastolak 2004. urtean. Orain beste urrats bat emanez, urrezkoa jaso dute. Jone Urteaga (Tolosa, 1958) ikastolako zuzendariak sari hau lortzearen garrantziaz hitz egin du.

Nola hartu zenuten urrezko Qa lortu zenutenaren erantzuna?

Ebaluazio prozesua bukatu zenean langileak oso pozik zeuden, oso baikor. Denera, 40 langile, 5 gurasa

eta 6 ikasle pasa ziren ebaluaziotik eta guztiak gustura agertu ziren. Irrikaz ari ginen erantzuna itxaroten, eta baita urduritasunez ere, maila oso altua baita, eta ebaluatzaileak oso zorrotzak. Erantzuna emozio handiz jaso genuen, oso landutako saria zen, ondo egindako eta bukatutako lana.

Lan gogorra izan al da azken urte-etakoa?

Bai, zuzendaritzarentzat, batez

ere. Kalitatearekin hasten zarenean, barrurako izango den lana bezela hasten zara, ez hain kanporako, hau da, ez saria eskuratzegatik. Barrurako edo guretzat baliagarria izango delako hasi ginen lanean zilarrezkoarekin hasi ginenean. 2004an lortu genuen, eta orain, 4 urte eta gero, hobetuz gindoazela ikusita, posible zela urrezkoa ailegatzera uste genuen, eta hala izan da.

Zertan aldatu da lan egiteko modua?

Gure eguneroko zereginen beharrezko den guztia sistematzatuz dugu. Alor guztiak daude horrela, hau da, unitate didaktikoak, tutoretzak, ebaluazioak, jolasturdoak... guztia, eta bakoitzak bere ardura du. 2001ean edo hasi ginen sistematzatze prozesuarekin, eta gutxi gorabehera 2003 urterako prest zegoen. Behin sortzen du-

zuean, uneoro elikatuz doan sistema bat, kudeaketarako oso baliagarria dena.

Tolosako hiru ikastetxe izan zirenen herenegun Qa jasotzen. Garrantzitsua da hori.

Bai oso garrantzitsua da hori. Ez dut uste Tolosa bezalako herririk edo Tolosaldea bezala eskualderik dagoen inguruan hezkuntzaren kalitatearekin alderatu daitekeenik.

«Egindako lanaren errekonozimendua da»

AITOR ERRASTI » Hirukide Eskolapioen zuzendaria

Aitor Errastik (Arrasate, 1965) lau urte daramatza Hirukide Eskolapioetako zuzendari bezala lanean. Bera bezala, langile guztiak «oso pozik» daudela dio kalitatearen zilarrezko Qa lortu dutelako.

Nola jaso zenuten sariaren berri?

Urduri ginen emaitzaren zain, izan ere, Eskolapioetako beste kide batzuk emaitzaren berri bazuten, eta gu itxaroten ari ginen erantzuna orandik. Hala, azkenean zilarrezko Qa lortu genuela esan zigutenean oso pozik jarri ginen. Azken urteetan egin dugun lanari eginiko errekonozimendua izan da.

Lan handia egongo da horren atzean.

Bai. Gure kasuan, Hirukide sortu zen unetik oso lotua egon den lana izan da. Izan ere aspalditik gauza solteak eginak genituen kalitatearekin, baina, Hirukide sortzen ari ginenean kalitatearen Qarena oso ondo zetorkigula ikusi genuen, kalitatearena bateratzeko, eta horrela izan zen. Lehenengo urteetan lan handia dagoela ikusten duzu, baina gero fruituak ematen hasten denean konturatzaren zara oso lagungarria dela, izan ere, egunero egiten duzun lanaren arlo guztiak ikutzen ditu. Azken batean, nola-

baiteko sistematika bat jarraitzea bezala da honen guztiaren ardatza.

Eta, gainera, hau ez da atzo jaso zenuten sariarekin bukatzen.

Ez, esan bezala, saria baino, errekonozimendu bat da, eta gainera, ez da hemen bukatzen den kontua. 5 urte hauetan, langileek, irakasleek, ikasleek, gurasoek parte hartu dute honetan eta hori eskertu beharra dago, sistematika bat lortu dugu, oso baliagarria eta lagungarria dela ikusten ari gara, eta honetan lanean jarraitu behar da. Emaitzak nabariak dira, gainera, izan ere, esaterako, ikasleen artean-eta urteroko egiten ditugun inkestetan, emaitzak hobetuz joan gara, eta azken urtean oso emaitza onak jaso ditugu. Nahiko esanguratsua da hori.

Herrian 3 kalitatezko Q lortzea garrantzitsua da, bai zuzentzat, bai herritarrentzat ere.

Bai, ez bairrik gabe oso berri ona da. Herri bezala oso polita da, eta Udalarentzat, esaterako, harro egoteko modukoa da horrelako albiste bat jasotzea. Herriko ikastetxeek elkarrekin egiten ditugu hainbat ekintza, eta poztekoa da hiruk jaso dugun errekonozimendua. Gainera, koake eskertu nahiko nituzke.

«Azken 4 urteetan ikastetxean egin diren aldaketen ondorio da»

ANA MONJE » Inmakulada ikastetxearen zuzendaria

Inmakulada ikastetxeak zilarrezko Qa jaso zuen herenegun Barakaldoko BECen izandako ekitaldian. Ana Monje (Tolosa, 1968) Inmakulada ikastetxeako zuzendaria izan zen bertan saria jasotzen. Oso pozik bere lankideak bezala, egindako lanaren errekonozimendua baita.

Nola jaso zenuten zilarrezko Qa lortu zenutenaren albisteak?

Emozio handia sentitu genuen. Oso pozik sentitu ginen, izan ere, azken 4 urteetako lana oso gogorra izan da, eta sari hau jasotzea nola-baiteko errekonozimendua zen. **Lan handia egin duzue, beraz, azken urteetan.**

Bai. Gure kasuan, gainera, ikastetxe txiki bat gara, eta bertako langileen artean egin dugu dena. EFQM ereduaren kudeaketa planak posible egin du gure kudeaketa plana aurrera ateratzeko. **Zertan aldatu da lan egiteko modua ikastetxean?**

Lau aldaketa nagusi izan ditugu Inmakulada ikastetxean azken 4 urteetan: batetik, guraso kooperatiba izatetik langile kooperatiba izatera pasa gara; bestetik, ikastetxe erlijioso batetik laiko bat izatera pasa gara. Eta, era berean, eskualduntze prozesu bat ere eman

dugu, eta ondorioz, gaur egun zikloak euskaraz eskaintzen ditugu. Hori lan handia izan da, izan ere, Lanbide Heziketan apenas dagoen materialik euskaraz. Beste aldaketa nabarmen bat, handitze prozesua izan da; eraikina handitu dugu, eta horrekin batera, ikasle kopurua ere igo da, %40 inguru. 16-18 urteko ikasleen kopurua beharantz doala ikusita garrantzitsua da igotzea hori. Beste aldaketa ikaskuntza ez arautuarena da; Diptazioarekin edota INEMekin esaterako aritzen gara, etorkinrentzat edota langabezia dauden emakumeentzat adibidez forma-

kuntza handitzen ari gara. Aldaketa hauek guztiak azken 4 urteetan eman ditugu, eta honekin batera joan da kudeaketarena eta kalitatearena. Talde oso ona dugu eta emaitzak ere horrelakoa izan da.

Zer iruditzen zaizu Tolosako beste bi ikastetxe ere kalitatearen Q jaso izana?

Izugarria iruditzen zait. Herri baten oso garrantzitsua kalitatearekin hain konprometituak dauden ikastetxeak izatea. Ziur nago herri gutxi izango direla horrelakoak. Datu oso garrantzitsua da hori, eta asko esaten du Tolosan ematen den hezkuntzari buruz.

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa),
Etxeak. Allirín eta Larramendin.
Alokatzeko (Tolosa),
Garajeak, San Frantziskoen, Araba etorbidean, Larramendin eta Batxilerr Zaldibian, erosteko aukerarekin.
Salgai (Tolosa), Etxebizitzak.
Kale Nagusian, Araba etorbidean, Batxilerr Zaldibian eta Martin Jose Iraola kalean.
Salgai (Legorreta eta Iruran), Etxebizitza eraberritzeko, Legorretan 32.000.000 pztia eta Iruran 20.000.000 pztia.
Salgai (Irura), Etxebizitza sartzeko moduan. Eskaintza ona.
Salgai, Garaje itxiak eta irekiak.
Amaroizen (Tolosa) eta Ibarrian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
...ETA ORAIN
PROBIGURRAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

Leihoak berritu ahal izateko diru laguntzak emango dituzte

Ekonomia » Leaburuko Txarama auzoko Zuhaizkin, besteak beste, leihoak egiten dituzte eta euren ustez mistoak dira energia aurrezteko egokienak.

ERREDAKZIOA

Energiaren Euskal Erakundeak jakitera eman duenez, 1.650 euro arteko diru laguntza emango du etxeko isolamendu gutxiko leiho zaharrak kendu eta berauen tokian beira bikoitzadun kamera dutenak jarri nahi duenari. Leihoen Renobe Plana bezala izenpetu duten diru laguntza honekin eraikinen energia eragin-kortasuna eta errendimendua hobetu nahi du Energiaren Euskal Erakundeak, horrela 2002/91/CE zuzentzarauak proposatzen duena bete ahal izateko.

Horiek horrela, Renobe Plana deiturikoaren helburuak argiak dira: gutxi isolatzen duten leihoak ordezkatzea. Izan ere, isolamendu hobea lortzeak berogailuetako energia kontsumoa gutxitzea ahalbidetzen du.

Baldintza teknikoak

Diru laguntza honek biltzen dituen baldintza teknikoaren artean hauek azpimarra daitezke: jarriko diren leiho berriek CE marka eramango dutela eta leiho zuloak etxebizitzaren kanpo aldeko itxituren barruan egingo direla. Era berean, ez dute diru laguntzarik jasoko etxebizitzaren barne aldeko itxituretan kokatutako leihoak dituztenek. Leihoez gain, gainera, ate-leihoak ere subentzionagarriak direla eman du jakitera Energiaren Euskal Erakundeak.

Erakunde honek leihoak aldatuta zenbat energia aurreztu ahal den kalkulatu ahal izateko ikerketa desberdinak egin ditu eta hauen arabera etxebizitza batetako leihoen ordezkapenak 1.400 KW

ordu urteko aurrezpena ekarriko luke. Hau da, dirutan 150 eta 200 euro arteko aurrezpena ekarriko luke urtean. Aurrezpen honez gain, urtean 800 Kg CO2 emisioak murriztea ere ekarriko luke leihoen ordezkatzeak.

Diru laguntzak


Diru laguntzak etxebizitzako %22koak izango dira eta gehienez 1.650 euro emango dituztela esan du Energiaren Euskal Erakundeak. Diru eskaera erakundeak kudeatuko ditu zuzenean.

Guztira aurreikusi duten diru poltsa 876.000 eurokoa izango da eta diru laguntza eskatzeko epe muga 2009ko ekainak 30 izango da. Bestalde, epe hori aurreratu egin daitekeela ere argitu du erakundeak, izan ere diru laguntzak eskakizunen arabera amaitzen badira epea aurreratu dezakete.


Zuhaizki zurdindegia

Leaburun, Txarama auzoan, da goen Zuhaizki zurdindegiko zuzendari den Jose Ramon Esnaolak adierazi duenaren arabera, berogailuen energia aurreztu ahal izateko barrutik egurrezkoak eta kanpotik aluminiozkoak diren leihoak dira egokienak, hau da mistoak bezala ezagutzen direnak.

Esnaolak, era berean, «denon-gatik ezagunak diren egurraren goxotasuna eta ikusgarritasunak, atzetik ere emaitza ezin hobekak ematen ditu beste materialekin alderatuta, hala nola aluminioa edo PVCarekin», esan du. Izan ere, Zuhaizkiko zuzendariak egurra hozbero eroankortasun gutxiko materiala dela gogoratu nahi izan



Zuhaizkiren arabera, leihorik egokienak barrutik egurrezkoak eta kanpotik aluminiozkoak direnak dira. R. CALVO



Eguraren goxotasuna eta ikusgarritasuna azpimarratzen dituzte enpresako arduradunek. R. CALVO

du eta, ondorioz, egurra ukitzen ari garen bitartean ez dugula bero galera handirik jasaten. «Bere ezaugarri higroskopoiari esker, neungiro goxoagoak eta udan freskoagoak lortzeko ahalmena eskaintzen du egurrak, hauxe da bere abantailetakoa bat. Isolamendu termikoak zuzenean gure ongi zatearekin du zerikusia», gaineratu du Esnaolak.

Bukatzeo, Zuhaizki zurdindegiko zuzendariak diru laguntza hauek ez direla etxebizitzetara mugatzen aipatu du, «komertzio, denda, taberna, hotel edo beste edozein eraikuntza moteetara ere zabaldu daiteke eta», gaineratu du.



Energiaren Euskal Erakundeak gehienez, 1.650 eurokoak izango dira. R. CALVO

Orain da garaia

Euskal Gobernuak, etxebizitza, biaketa edo baserrietako jabeentzat, 1.650 € arteko diru laguntzak eskaintzen ditu etxebizitza bikoitzeko, energia aurreztu nahia duen leiho zaharrak aldatzeko.

Zuhaizki-ra itzeli, (Beira bikoitza eta europar kalitateko zihurtasuna duten egurreko leihoen fabrikazioan espezializatua) eta ekiteko bideratzen lagunduko ditugu. Aurrezki 22% zuzen leiho berritan eta neguz gogatu.





Txotxongiloak ikuskizunaren parte garrantzitsua izango dira. HITZA

'Txaribari' antzezlan gaur Gurea aretoan

Villabona » Panta Rhei antzerki taldeak kulturantzazunari buruzko emanaldia egingo du; 17:00etan hasiko da.

ERREDAKZIOA

Panta Rhei antzerki taldeak *Txaribari* ikuskizuna emango du gaur, 17:00etan, Villabonako Gurea aretoan. Familia osoarentzat eta bereziki haurrei zuzendutako emanaldia da. Sarrearak lau euro balio ditu.

Txotxongiloak, pailazoak, kulturen arteko harremana, exotismoa, katarsi komunitarioa, musi-

ka etnikoa... Hori guztiak dira gizakien arteko errespetua eta bizikidetasuna bultzatu nahi dituen umore-ikuskizun horren osagaiak.

Txaribari obran kontatzen denez, eraikin oso berezi batean mundu osoatik joandako familiak bizi dira batera. Gorabeherak izaten dira hain toki txikian hain kultura ezberdinak denak batera daududelako. Ezkutuko indar batzuek hesi baztertzailak sortzen dituzte, eta bizilagunak saiatzen dira indar horiek nolakoak diren argitzen; horrela, guztiok nahi duten festa kulturantzaz gozatu ahal izango dute.

Aldi baterako euskara teknikari lanpostua

ERREDAKZIOA

Anoeta eta Irurak udalek hizkuntz normalkuntzarako eta euskara teknikari lanpostua aldi baterako bete eta lan poltsa bat osatzeko deialdia egin dute.

Hautaketa prozesuan onartua izan eta parte hartzeko hurrengo baldintzak bete beharko dira: erdi mailako unibertsitate ikasketak eta 4. hizkuntz eredu. Eskaerak aurkezteko azken eguna hilaren 31 da. Oinarriak bi udaletako webguneetan aurki daitezke.

Kiroldegiko ikastaroetan izen-emateak zabalik daude

ERREDAKZIOA

Anoetako Abraham Olano Udak Kiroldegiko 2008-09 ikasturteko bigarren hiruhileko ikastaroak urtarilean hasiko dira. Izen emateak irekita daude dagoeneko. Cycling eta yogako ikastaroetan oraindik ere plaza libreak badaude.

Bestalde, urte guztiko iraupena duten ikastaro batzuetan ere plaza librearen bat badago eta nahi duenak izena eman dezake. Izena emateko kiroldegira joan edo 943 651333 zenbakira dei daitezke.

Laburrak

Ipuin kontaketa eta txokolatada Asvinenean

ADUNA • Asvinenean ipuin kontaketa eta txokolatada antolatuta dugu gaurko, 17:30ean. Kontukantoi taldeak *Bazen noizbait, nonbait, norbait* obra taularatu du.

San Tomas Eguna Alkartasuna biltokian

ANOETA • San Tomas Eguna ospatuko dute bihar Alkartasuna biltokian. 18:00etan 40 lote zozketatuko dituzte bazkideen artean. Norbaitek joaterik ez badu, seme-alabaren bat joan daiteke bere orde. Ondoren, txistorra jateko aukera izango da, edaria norberaren kontu izango dela.

Laskorain Ikastolako abesbatzaren kontzertua

TOLOSA • Asteartean, hilaren 23an, Laskorain Ikastolako abesbatzak Sakramentinoen elizan kontzertua eskainiko du. Alde batetik, txikiak ariko dira (3. eta 4. mailak) euskal kantak eta Gabonetako kantak abestuz. Bestetik, kokortuagokoei kantatuko dute, egitarau anitza eskainiz (Titanic, Loriai udan intza bezala, Dubula...). Guztira 45 minutu eskas iraungo du eta 20:00etan hasiko da.

Eresargikoen Gabonetako emanaldia gaur parrokian

VILLABONA • Eresargi Abesbatzak Eguberrietako ohiko kontzertua emango du gaur, 19:45ean, Jesusen Bihotza parrokian. Abesbatzak guztiei gonbidatzen diete bertara joatera. Bestalde, hilaren 24ean Amasa eta Villabonan abesten aterako dira. Egun horretan bildutako dirua Afrikako Mali herrialdearentzat izango da.

Asteburuan bi filma ikusgai Gurea aretoan

VILLABONA • Datozen egunetan bi filma ikusi ahalgo dira Gurea aretoan. Helduentzat *Noches de tormenta* gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean. Haurrentzat *Olentzero eta oparien ordua* bihar 17:00etan, etzi 17:30ean eta asteartean 17:30ean.



Euskararen herria hizpide

VILLABONA • Naziotasun Jardunaldien azken egunean Inaxio Agirre euskalzaleak eta Igone Lamarain EHEko kideak *Euskal Herria euskararen herria* hitzaldia eman zuten. I. GARCIA



VII. Ipuin Lehiaketako sarituak

ZIZURKIL • Liburuaren Astearen baitan, Teodoro Hernandorena VII. Ipuin Lehiaketako sari banaketa egin zuten atzo. A mailan lehenengo saria Leire Perurenak lortu zuen eta bigarrena Michel Dos Santosek; B mailan Ander Zubelzu eta June Gurrutxaga; C mailan Naroa Balda eta Unai Urkola; D mailan Ainhoa Marzol eta Leire Lopetegi izan ziren lehen biak eta Leire Padillak aipamena jaso zuen; E mailan Aintzane Egues eta Urtzi Reguero izan ziren lehena eta bigarrena. I. GARCIA



Eguberrietako kontzertua elizan

ADUNA • Loatzeko musika eskolako ikasleek Eguberrietako kontzertua eman zuten atzo Adunako elizan. Ohi bezala, jende asko izan zen emanaldia entzuten. I. GARCIA

Hilberria



JOSEFA LOIDI IRAZABAL
(Blas Zabalondoren alarguna)



Gure bizi-hatsarekin lagundu dizugu honaino; aurrerantzean, aitaren gozoan uzteko. Halaxe, gu garen artean, bihotzean biok betiko.

ZARAUZ
2008ko
abenduen 20a

Etxekoak

Hilberria



JOSEFA LOIDI IRAZABAL
(Blas Zabalondoren alarguna)



Atzo hil zen, Zarautzen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Seme-alabak: Ana Mari eta Jose Mari Larrañaga, Miren Maite, Koldo eta Maite Oianguren, eta Beatriz. Bilobak: Aitor Larrañaga; Aharratz eta Ustaritz Zabalondo. Ahizpak: Miren eta Karmen. Ezkon-anaia: Luis Atorrasagasti. Horiak eta iloba, lehengusu eta gainerako senideek eskatzen dizuetue oitutz egin dezazuela Josefaren alde eta orimean gorde.

Hileta elizkizuna: Gaur, Zarauzko Santa Maria parrokian, 17:30ean. Ondoren, Elgetako kanposantuan hobiratu dugu gorpu.

Helbidea: Gipuzkoa kalea, 41-38 (Adaska) - Zarautz San Roke kalea, 8 - Elgeta

ZARAUZ
2008ko
abenduen 20a

E Elkarrizketa

JOSE MARI MUJICA Tolosaldeko eta Goierriko LAB sindikatuko idazkaria



R. CALVO

«Euren krisia euren kontura; hauxe da gure kontsigna»

Ekonomia » Mundu mailako krisiak gure eskualdean eragin dituen ondorioaz hitz egin dugu Jose Mari Mujika LABeko arduradunarekin.

REBEKA CALVO

Urteak daramatza Jose Mari Mujika langileen aldeko borrokan. Krisi garai desberdinak ezagutu ditu eta baita azken urteetako «ustetzeko» oparoaldia ere. Orain arteko eredu ekonomikoak «tope» egin duela dio eta batzuen «aberraste nahia» denok oraindu behar dugula. Krisi egoera honi aurre egin nahian gobernu desberdinek sustatutako neurriek, gainera, «eredu kapitalista honetan sakontzeko bakarrrik» balioko dutela ere esan digu sindikalistak.

Krisiaren mamua mamu izateari utzi eta errealliter a egin du salto, langileak, bien bitartean, agintarien mezuak desfrizatu nahian dabilta.

Gure ustez egoera ulertu ahal izateko hiru kontu hartu behar dira kontutan. Batetik, sistema ekonomikoak ezarritako hazkunde ereduak sabaia jo du, izan ere hazkunde hau espekulazioan oinarritu da eta kapitalaren interes asezinak mundu mailako finantza sistema jarri du kolokan. Bestetik, krisia lan mundura bi norabideetatik etorri da; barne kontsumorearen murrizketatik eta konfiantza galtearen ondorioz banketxeek enpresei dirua uzten ez dietelako.

Azkenik, egoera honek zenbait enpresari marjinetan ondorioak ekarri ditu, onurak txikitu dituzte eta beraz, mahai gainean jokoan dagoena da marjinaren txikitzearen ondorioak langileak eta enpresek pairatuko dituztela.

Eta eskualdean ere ez gara mundu mailako krisi finantzierioaren ondorioez libratuko, noski.

Gure eskualdean enpresa batzuek aurkeztu dituzte jada enplegu erregulazio espedienteak (Gorostidi, Arteka, Munksjo Paper - leheneko Kalparsoro - Graficas Amalika), beste batzuk berriz, bide hori jorratzeari dira aztertzen. Egoera honetan, erreallitate bat espediente hauena da eta honek bere ondorioak izango ditu, baina honekin batera badago beste erreallitate bat; enplegu erregulazio espedienteak ez den ezkutuko espediente baten parekoa den erreallitatea. Hau da, lanpostuen etengabeko galera emango dela: azpikontratatuak langileak, egoera prekarioenean daudenak... hauek guztiak kaleratuak izaten ari dira eskualdean eta enpresa mota desberdinetan, gainera. Beti bezala, kaltetuak gartzeak, emakumeak eta migrazioetik datozen langileak dira.

Langabezia datuak ikusi besterik

ez dago; INEMeko datuen arabera urtarriean Tolosan 1.587 langile zeuden langabezia eta azarloan kopurua 1.744ra igo da.

Eta kopuruak gora egingo du datoren hila batean. Enpresaburuak garbi dute zer egin behar duten beren marjinak mantentzeko eta horregatik igoko da kopurua. Langileek, zentzu honetan, garbi eduki behar dute lanpostuen defentsan borroka artikulatzen ez badituzte administrazioaren eskuetan geratuko direla bere lanpostuak eta honek, aldi berean, enplegu erregulazio espedientei irekiko dizkiola ateak. Izan ere, azken hamarkadan prekaritatean edukitako langileak kaleratuak izango dira. Enpresari askok langileak erabili eta botatzeko produktua bagina bezala tratatzen gaituzte eta horretarako administrazio publikoaren laguntza dute.

Ez duzu ez, itzaropenerako tarte askorik uzten. Zein da orduan langileak jarraitu beharreko bidea?

Betikoa, langileok beti erabili izan duguna: antolatuta eta borrokatuta, ez dago beste biderik eta. Hortik dator gure kontsigna: euren krisia euren kontura!

Borroka garaia da, hortaz.

Noski eta borroka hau langile guztiok gauzatu behar dugu: langileek, pentsiodunek, langabeek, gazteek, emakumeek... Ezin dugu onartu gutxiengoaren interesak lehenestea gehiengoaren behar gainetik. Guzti honen gakoak langileok sor-

tzen dugun aberastasunaren birbanaketan datza. Tokian tokiko gobernu edo sasi-gobernuek praktikatzen duten politikaren aurrean -kapitala geroz eta esku gutxiagotan metatzeko prozesua lehenesteko politika- aberastasunaren birbanaketarako modu bidezkoagoa aldarrikatuz.

Enpresaburuetaz haratago, erantzule politikoetaz ari zara, zein da euren erantzunkizuna honetan?

Ezin dugu ahaztu egoera honek erantzule politikoak ere badituela, gauzatu duten politika sozio-laboral, fiskala edo monetarioa izan direlako egoera hau bizitzea ahalbidetu duena. Harrigarria bada ere enplegu erregulazio espedienteak

Tolosaldeko lau enpresek enplegu erregulazio espedienteak aurkeztu dituzte jada

Langileok sortzen dugun aberastasunaren birbanaketa bidezkoagoa izan beharko luke

aurkeztu dituzten edo aurkeztekotan diren enpresa batzuk, azken urteetan sekulako etekin ekonomikoak erdietsi dituzte; irabazi horiek tresna desberdinetaz baliatuz euren artean banatu dituzte, ez langileen artean. Eta orain, latsagabeki, langileok gerrikoa estutu

beharrean gaudela ari dira esaten. Enplegu erregulazio espedienteak aurkeztu nahian dabilzan enpresa asko k azken hamarkadan ez dituzte kontu eta balantzeak erregistratu, horregatik hauxe da egiten dugun galdera: Non dago administrazioa honelako lapurren aurka eskua sartzeko? Badirudi lapurra nor denaren arabera administrazioak beste aldera begiratzen duela beti eta baditugu adibide garbiak: Irungo Ogasuna, Guggenheimeko afera edo Getariako Balentziaga museoa.

Administrazioa, enpresaburuak, langileria... aipatu dituztu, eta Patronala, zein da bere papera honetan guztiaz?

Bere helburua argia da: egoeraren araberako neurriak egiturazko bihurtu langileen eskubideetan murrizketak gauzatu -kalerataz merkeagotuz, magutasuna handituz, soldatak gutxituz, aldi baterako langileak eta langile finkoak kaleratuz, azpikontratazioa handiagutu...-

Zein da egoera honen aurrean LABek egiten duen irakurketa?

Guk argi dugu, eredu sozio-politiko eta ekonomikoaren aldaketa derrigorrezkoa eta premiazkoa da. Euskal Herrian denok ongi bizitzeko bezainbeste aberastasuna badago, baina horretarako modu bidezkoago batean birbanatu behar da, hau da, ekonomia pertsonen mesederako planifikatu behar da eta ez alderantziz. Kalitatezko zerbitzu publikoetan inbertitu behar da (hezkuntza, osasuna, babes soziala, etxebizitza...); baina edonola ere ereduaren aldaketa gainera eztabaida funtsezko eskubide batean oinarritzen da, guzti horri bide emango liokeen erabakitze eskubidean, hain zuzen ere.

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



URTE ASKOAN!

Amagoia Agirre Alkorta (Villabona). Biharko partez zorionak ene txiki! Matte zaitugu mattia! Ondo pasa ta aprobetxatu eguna amako! MUUA!



Urte askoan!

Zorionak Txomin.

10 muxu goxo aita, ama eta Noraren partetik.



Urte askoan!

Jesus Mari Ormaetxea (Alegia).

Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.

Gurean, San Tomas aurreratu egin da

ABALTZISKETA • San Tomas eguna bihar bada ere, eskualdera heldu dira egun honen zantzuak. Hain zuzen ere, Abaltzisketan San Tomas azoka egin zuten atzo zehar. Giro hotzak ez zuen jendea etxean geldiarazi eta plazan giro ederra sortu zen. Txorizoa jateko aukera izan zuten beratar-tuek. Halaber, hainbat postu zeuden bai erosteko baita ikusteko ere. Ziu-renrik gutxi joango ziren esku hutsik... IMANOL GARCIA



agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

943 671 427

943 671 427

Gabon hauetako oparia

25€

Opari bezala Xurdirn eta bere lagunen posterria eta neurtzailea eramango duzu.

XURDIRN KD eta DVD

Autoa irabaz ezazu!

Gure bezeroen artean **DACIA SANDERO** autoa zozketatzen dugu

Tolosa

txokoa

sarrera
parea
zozketan!

irabazlea:
• Migel Atxega (Tolosa)

Asteartea • abenduak 23
20:30ean • Tolosako Leidorren
Tolosako Orfeoia eskainita

Tolosako Orfeoia
Orfeón de Tolosa

Gabonetako
Kontzertua

2 liburu zozketan!

1936ko Gerrako
Oroitzapenak,
Tolosaldean eta Leitzaaldean

irabazleak:
• Axun Mujika (Villabona)
• Arantxa Gorostidi (Anoeta)